

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **36/2026 Mozioa, martxoaren 18koa, despopulazio arriskuan dauden inguru edo herriguneei buruzkoa**

Arabako Batzar Nagusiek, 2026ko martxoaren 18an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

36/2026 Mozioa, martxoaren 18koa, despopulazio arriskuan dauden inguru edo herriguneei buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek uste dute lehentasunezkoa dela despopulazio-arriskuan dauden landa-inguru edo -herriguneentzako babes fiskala emateko markoa berrikustea. Horretarako, erreferentziatzat hartuko da, beste irizpide batzuen artean, 500 biztanle bitarteko herriguneeen egoera.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote diagnostiko bat egin dezala, Lurralde Orekaren Sailarekin lankidetzan, despopulazio-arriskuan dauden inguruak edo herriguneeak objektiboki identifikatzeko. Horretarako, besteak beste, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: biztanleria, oinarritzko zerbitzuetarako irisgarritasuna eta ekonomia-sarea.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote azter dezala ea gaur egun erabiltzen diren biztanleria-mugak bat datozen despopulazio-arriskuari lotutako zerga-neurri guztiekin (500 biztanleko atalasea barne), Arabako landa-ingurunean kenkarien progresibotasuna, koherentzia eta eraginkortasuna bermatze aldera.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote beharrezko araugintza-izapideak egin ditzala despopulazio-arriskuan dauden inguru edo herriguneeen zerrendaren eguneraketa eta, hala badagokio, zerrenda horretan sartzeko irizpideak, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikagarri izan daitezzen.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 18a

*Lehendakaria*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**